

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Garizumako 4. igandea

2010 Martxoak 14 (C urtea)

Patxi Otamendi

Josue 5, 9a. 10-12

2 Korintiarrei 5, 17-21

Lukas 15, 1-3. 11-32

- Ebanjelioak diosku parabola ezagun hau farisear eta idazlariei zuzendua zela. Horiek nolabait erlijioaren zaindari eta behatzaile lanak egiten zituzten: zer zen zuzena eta zer ez.

Ba, gizon zuzen haiei kontatzen zaien parabolaren ezohiko familiaburua ageri da: aita errukiorra azaldu nahi dena, farisearrei aita axolagabea irudituko zitzaien ezbairik gabe. Nola liteke aita batek –garai hartan- seme txikiaren nahierara makurtu eta ondarea banatzea!

Gainera egun gutxira semea atzerrira doa eta ondasun guztiak atzerritarren esku geratzen dira. Familiaren ondarea arrotz batzuen eskuetan utzi du. Galbide onartezinean sartu denez familiarentzat lotsabide suertatu da, eta alboratua izan beharko luke.

- Seme hari gauzak txarretik okerrera dihoazkio. Baina aita semea etxera itzultzen ikustean –nahiz eta ez jakin itzuleraren zergatia- ongiatorria ematera korrika irteten zaio bidera. Semeak aitari halako trakeskeriak egin ondoren, aita gehienen jarrera horrelakorik etxean berriro ez onartzea izango zen. Denbora luzerako ala betirako arbuia egingo zuten. Hemen, alderantziz: semeak duintasunik galdu ez duela adierazteko –txerriak zaintzen ibili bada ere- aita jantzia eta oinetakoak eskaintzen dizkio. Eta festa antolatzen du, gertakari hura denek pozgarritzat har dezaten. Zer irudituko zitzaion jendeari? Behintzat badakigu nolako jarrera hartu zuen seme zaharrenak –aitarekin batera etxearen interesak defenditzen zituenak-. Seme zaharrenak bereak eta bi esaten dizkio aitari. Jendeak, ordea, ez du festa errefusatzeko, onartzen baizik.

Seme zaharrenaren iritzi minduei, aita esaldi bat zuzentzen dio. Parabola esaldi horrekin bukatzen da, eta badirudi irakurleari zintzilikatua geratzen zaiola. Hau da: irakurlearengan geratzen da istorio honen amaiera, aitaren esaldia geuk barneratu behar bagenu bezala.

- Ildo berean, farisearrak harriturik zeuden Jesusen jarrerarekin. Lekuz kanpoko zeritzoten Jesusen erabiltzen zuen joera askea. Nola zitekeen zergalari maltzurerekin bildu eta beraiekin mahaian jateko aurpegia izatea! Zergalariak gobernuak ordaindutako jauntxoak ziren eta herriaren gorroto bizia zuten. Soilik dirutza zutenak egin zitzaizkien halako otordu eta jai-bilkurak. Jai haietara ez ziren soilik dantzariak deitzen, baita garai hartako filosofo eta irakasle ibiltariak. Zergatik biltzen zen Jesus sona txarreko jende haiekin? Ez baitziren behartsuak, legea betetzen ez zuten harroak baizik.

- Argi dago Jesusen aberats jende haiei gonbidapenak onartu zituela, euren jaietara joanez. Jende haiei denbora partekatzea zilegi iruditu zitzaion. Solasaldia merezi zutela, hain zuzen.

Jesusek onartutako otordu haiek gero eta okerrago ikusten zituzten farisearrek. Elkarrekin mahaira biltzea partaide izatea baitzen. Horregatik bazkari eta ondorengo jaiak era xumeago batetan talde erlijiosoak ere egiten zituzten: farisearrak, esenioak...

Jesusek zuzentasuna baino, aurretik jartzen du norbanakoek maitasunari leku egiteko izan lezaketen gaitasuna. Jendearen maitasun alorra landu nahi du. Hortik onbidea zabal daitekeela agertzeko ospakizunak lantzen ditu, bekatariei zein ikasleekin. Guztion onbidea lortzekotan zegoela uste zuen, eta baikor ziharduen Jainkoaren agenda gauzatzen ari zela aldarrikatuz.